

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Oleaga, Lekuona, Mitxelena, Aita Villasante, Lojendio, Irigaray, eta Arrue jaun euskaltzaiñak. Etxaniz, Aresti, Zugasti, Loidi, Aita Zabala, San Martin, eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Azkeneko batzar bietako agiriak irakurri dira eta ontzat artu dira.

Aita Ignacio Mancisidor urgazlea il da. Euskaltzaindiak bere atsekabea agertu dau.

Arruza-k Euskaltzaindiari zuzendu deutsan karta luze bat irakurri da. Bertan "Euskaltzaindiaren Laguntzailleak"-en izenez prestau direan eleizkizunen gaiñean berba egiten da. Arrue-k diño Arruza-k berak karta orretan itzez itz iminten dauela "elitzakela izan bear Euskaltzaindiaren zeregiña" eleizkizunak prestetea, eta garbi dagoela auziaren erabagi-bidea. Diño, gaiñera, Euskaltzaindiaren arautegiko artikulua batean datorrela Euskaltzaindiak euskerearen eta euskal-literaturearen irakastea sortuko dauela, eta ori alan izanik umeai euskeraz esamiñak egin eta sariak emotea bere eginbearren barruan dagoela. Diño, gaiñera, Euskaltzaindiari Arruza-k zuzendu deutsan kartearen kopia bat berari be bialdu deutsala eta aregaz batera artu dauen beste karta batean diñotsala. Euskaltzaindiari zuzendu deutsan karta idigiaren kopia bialtzen deutsala. Diño, gaiñera, badakiala karta idigi ori Euskaltzaindikoak eztireanen artean be zabaldu dala, eta Arruza-k berak be, zuzendu deutsan kartan, alan autortuten dauela karteari idigia deituten deutsanean. Eta azkenez diño Euskaltzaindiari bere lorra agertuten deutsala zabaldua izan dalako Euskaltzaindian tratatu baiño leenago.

Arazo onetan bidea artuta barriketa luzea sortu da. Lekuonak eta Aita Zabala-k diño Euskaltzaindiaren zeregiña dala, ez euskerazko eleizkizunak egitea, baiña Ele-xeari egin daizan eskatutea, eragitea. Orretan bat datoz bildutako guztiak.

Mitxelenak diño Agustuko batzarrean Arantzazu-rako ibillaldiaz erabagi bat artu zala, baiña alan da guztiz be, jakiñaren gaiñean egonagaitik, ezjakola ezelako jaramonik egin eta artu ezpalitz legez jokatu dala.

Arrue-k diño "La Gaceta del Norte"-n Arruza-k argitaratu dauen artikulua batean beste gauza batzuen artean diñoala: "seria muy conveniente que, antes de poner un nombre en vascuence a una Entidad, Grupo o establecimiento, se consultara siempre, previamente, o bien a la Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, entre-suelo, o bien al grupo denominado "Euskaltzaindiaren Laguntzailleak", "colaboradores de la Academia de la Lengua Vasca", apartado número 1.226, Bilbao, eta alkartade bi balira legez, bakoitza bere zuzenbide bereziagaz, jentearen aurrean jokatu dauela, eta ontzat artu zirean oiñarrietan argi ta garbi diñoala "Euskaltzaindiaren

Laguntzailleak” eztaukala nortasunik eta Euskaltzaindiaren jagon-sailleko eginbeartean lagundu gura daben Euskaltzaindikoak eztrean euskaltzaleai bidea emoten jakiela aren bidez. Diño, gaiñera, jentearen artean zabaldu dan ezker, alako gauza bateri bide bardiñetik jentearen artean ukatzea jagokola berez, baiña ori egitea eztauela berak eskatzen.

Mitxelena-k diño emendik aurrera egintza konsumatuen bidetik ezin joan geintezala geiago eta bein da betiko erabagi bearrekoak direala ainbeste luzatzen ari direan esan mesan guztiak eta zuzen edo oker Euskaltzaindia bera dala bere erabagiak artu bear dituzana, nai bere onerako izan, nai bere kalterako, eta ez beste, eta Euskaltzaindia bat dala Euskalerra osoan eta eztagoela Bizkaiko Euskaltzaindik eta ezta Gipuzkoakorik be.

Momentu onetan batzar-gelan dagozan euskaltzain guztiak —Oleaga-k bere botoa eztau emon ez alde, ez kontra— botoa urrengo onen alde emon dabe eta alan erabagi da: Arruza jaunari jakinerazotea Euskaltzaindiak txarto ikusi dituzala bere ibillerak, eta gura badau, egiten jakozan karguen deskargu bat egin leiela izkribu baten bidez.

Baita erabagi da bildu daitela urrengo batzarra egiten dan egunean batzar buruzagi jagon-saillekoa burua izentau daien, eta orretarako urrengo batzarrerako deian oar bat imini daitela bildu bear dabenak alan egin daien.

Arrue-k diño Mitxelena-k iztegi lanetan jarraitu daien erabagi bat artu bear litzakeala. Orretarako beragaz berba egin dauela eta prest dagoela bere zeregiñak guztiz itxi barik iztegi lanetan denpora zati bat emoteko. Diño bi milla ta bosteun peseta emon leiozala illean lan orregaitik eta alan erabagi da. Mitxelena-k be ontzat artu dau.

Antonio Urrestarazu jaunaren karta bat irakurri da. Eskerrak emoten dituz bera gogoan euki dogulako urgazleak izentetako orduan. Baiña diño izentaziñoa ukatu bearrean aurkituten dala, eta orregaitik eleuskiola iñori atsekaberik emon gura, ezta beraganako agertu dogun borondate ona galerazo.

“Euskal Kulturaren Alde”-k zuzendu dauen karta bat irakurri da. Ain zuzen be Alkartadearen izenean A. Urrestarazu jaunak firmetan dau. Diño euren batzar batean erabagi dabela “Ikas”-ri, “Eskualzaleen Biltzarra”-i eta guri Bayona-n oraintsu egin direan irakas-solasetan artu dituezan erabagiak bialtzea. Erabagi orreitan guri eskatuten deuskue alegiñak egiteko gure erriak euskerea aintzat artzen ikasi daien erririk erri euskal-itzaldiak, euskal-solasak eta abar sortzen. Erantzun bekie jakin dogula euren naia eta eskerrak emon bekiez.

“F.E.V.A. Federación de Entidades Vasco Argentinas”-ek zuzendu dauen karta bat irakurri da. Euren atsekabea agertuten deuskue Orixeren eriotzeagaitik. Orixe goratuten dabe eta diño egoki izango litzakeala bere lanak argitaratu edo beste zerbait egitea aren omenez. Eskerrak emon bekiez.

“Euskaltzaleak” Alkartadeak Buenos Aires-tik zuzendu dauen karta irakurri da. Euren atsekabea agertuten deuskue Orixe-ren eriotzeagaitik eta bera asko goratuten dabe. Eskerrak emon bekiez.

Fray Andres de Cristo Rey Algorta-ko Trinitarioen Aita Ministroak karta batean eskerrak emoten deuskuz duban bialdu deutsaguzan euskerazko liburu batzukaitik.

Bizkaiko Diputaziñoaren ofizio bat irakurri da. Bizkaiko bertsolarien azken txapelketa nagusian txapeldun gelditzen dan bertsolariarentzat kopa bat emotea erabagi dabela diño. Bere garaian emon zan kopa ori. Eskerrak emon bekiez.

Bizkaiko Diputaziñoaren beste ofizio bat irakurri da. Aita Placido Mugica Barrondo jesuiteak erdal-euskal iztegia argitaratzeko egin deutsien eskabideaz eretxia eskatuten deuskue. Esan bekie Aita Mugica Euskaltzaindiko urgazlea dala, badakigula izugarritzko lana egin dauela aspaldiko urteetan gaia biltzen eta iztegia urte askotako frutua izango dala, Aita Mugica-k Euskaltzaindiaren konfiantzea merezi dauela iztegitille legez, eta erdal-euskal iztegi baten bearra dagoela.

Federico Krutwig, Luis Mitxelena, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray, eta Aita Luis Villasante-k firmatuta eskabide bi irakurri dira. Batean eskatuten da Joanes Diharce, beneditano izenez Aita Xabier eta poeta izenez Iratzeder euskaltzain izentetea. Bestean Elissalde zanaren utsunea betetako Joanes Mirande poeta ezaguna euskaltzain izentetea. Datorren batzarrean erabagi bedi arautegiak diñoan gisa.

Oleaga, San Martin, eta Jose Antonio Loidi jaunak Domingo Agirre novelariaren erabagia ekarri dabe:

“1961-garren urterako ipiñita zegoen “Domingo Agirre” novela-saria emateko izendatu zan batzarrekoak bildu dira eta ago batez erabaki dute: “Batetik bestera” izeneko novelari ematea “Domingo Agirre” saria. Begiratu da egillea nor dan eta Eusebio Erkiaga dala ikusi da. Eta jakin dedin, agiri au bete eta firmatzen dute 1961 Urriaren 14-an. Nazario Oleaga, Juan San Martin, Jose Antonio Loidi.”

Mitxelena, Aita Villasante, eta Arrue jaunak be “Toribio Alzaga” teatro-sariaren erabagia ekarri dabe:

“1961-garren urterako ipiñita zegoen “Toribio Alzaga” teatro-saria emateko izendatu zan batzarrekoak bildu dira eta ago batez erabaki dute: “Mugaldeko herrian eginikako tobera” izeneko teatro-lanari “Toribio Alzaga” saria ematea. Begiratu da egillea nor dan eta Gabriel Aresti dala ikusi da. Eta jakin dedin, agiri au bete eta firmatzen dute 1961 Iraillaren 22-an. Luis Mitxelena, Antonio Arrue, Aita Villasante O.F.M.”

Alan jakinerazo jako Bizkaiko Ahorro Kaxeari eta ontzat artu dabe. Illa onen 31-an, goxeko amabi ta erdietan, sariak partidu gura dituez, eta ahorro-eguna dala-ta egingo dituezan sari-emoteetara gomitetan gaituez agurrezko txartel baten bidez.

Irigoyen-ek diño Bizkaiko Ahorro Kaxeak ontzat artu dauela datorren urtean, toketan dan legez, novela-saria emotea, eta alan zabaldu dabela urtero ahorro-egunari ospea emateko artzen dituezan erabagi guztiakaz batera. Agustuko batzarrean Euskaltzaindiak erabagi eban lengo oiñarriak eurak aintzat artzea, eta lanak bialtzeko epea 1961 Uztaillaren 20-a imini bedi, eta alan zabaldu bedi.

Irigoyen-ek, diño egin dala Bilbon Bizkaiko bertsolarien azken txapelketa nagusia eta Juan Azpillaga gelditu dala txapeldun eta Deunoro Sarduy bigarren, eta bertan emon direala umeen esamiñetako sariak, erabagi zan legez. Nafarroako Leitzan be egin da egitekoa zan txapelketea. Nafarroako azken txapelketa nagusia Etxarri Aranaz-en egingo da Urriaren 29-an, eta oi dauen legez Viana Printzipearen Alkartadeko Euskeraren Aldeko Saillak prestetan dau Euskaltzaindiaren laguntasunagaz. Atsegiñez ikusten dau Euskaltzaindiak guztia.

Irigoyen-ek diño Euskaltzaindiko soruan pinkia emotea kostetan dana pageta-ko asmoagaz telefonoz deitu eban emakume ezezagunak amaika milla ta bosteun peseta bialdu dituzala. Diño, gaiñera, presupuestoa eskatu deutsala “Larrinaga Hermanos”-i eta 6.550 pesetagitik emongo leukiela. Diño, gaiñera, emolleak enpara-ua sitsak janda dagozan olik txarrenak aldatzeko bialdu dauela, berari telefonoz esan eutsanez. Diño, gaiñera, ol batzuk aldatu eta besteak ez egin ezker oso txarto gelditzen dala, arotzak esan eutsanez. Diño, gaiñera, Gabriel Aresti-ren bidez “Compañía Vasco Africana S. A.” prest dagoela sei milla pesetagitik —prezio guztiz berezia eta arrigarria euren euskaltzaletasunagaitik— etxe osorako ola emoteko, Ginea-ko egur klase onenatarikoa, eta arotzak iru milla peseta inguru kobrauko leukeala iminteagaitik. Diño, gaiñera, Euskaltzaindiak 1954-garren urtean sortu eban R. M. Azkue katedreak badiarduala eta emoten direan euskerazko klaseetatik ikasleak pagetan daben euneko amar Euskaltzaindiak artzen dauela, gaiñerakoa irakasleak eurak jasorik lan-saritzat, eta 1960-tik 1961-rako ikastarakoa 3.985 peseta dala, eta gitxi gora beera presupuesto osoa betetako falta dana dala. Atsegin aundiagaz ikusi da dana eta egin beitez Euskaltzaindiaren etxean obetute guztiok.

Oso berandu egin dan ezker eztago astirik Aita Villasante-k Euskaltzaindiarentzat prestatutako gramatika-kapituluen gaiñean artu direan oarrak arakatuteko eta urrengo batzarrerako itxi dira.

Irigaray-k be aurkeztu gura dituz zimentarrizko iztegi batez oar batzuk, baiña urrengo batzarrerako itxi da.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
I. M.<sup>a</sup> Etxaide